

Donostiko euskal indar-neurtzea.

EGINTZA

EUSKAL-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur kontu ematera leku on-tan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakoa dan aurten izkribatzallen indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duben sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guziak, batzarreak erabaki du era ontan:

Irabazi dituzte *sariak*:

Avelino Barriola jaunak «Lagun char bat» izentzat duben, iru egintza ta lau agerralditan antolatutako jostirudi gain gañekoa-gatik.

Nola gai berean iru sari irabazi dituben, aurrerako indar-neurtzez kanpora geldituko da.

Gañera irabazi dituzte *sariak*:

Victoriano Iraola, José Elizondo eta Emiliano Múgica Lasquibar jaunak, «Gertatua», «Ontza eta gaitza» eta «Malko garratzak» izendatutako moldaera egokiagatik.

Irabazi dituzte *aldeerak*:

Isaac López Mendizábal, José Elizondo, José Ignacio Garmendia eta Juan Ignacio Uranga jaunak, «Iziartxo», «Mendiko pakea edo ba-

serritar bat uriyan», «Ichasoari» eta «Baroja-ren echia» izentzat duten lan apañagatik.

Aipamen onragarriak irabazi dituzte:

Luis Latierro eta Cayetano S. Irure jaunak, «Esker gabia» eta «Doakabeak» izendatua-gatik.

Indar neurtzez kanpora eman dira bi aipamen onragarri, Jules Moulier apaiz jaunari eta Victoriano Iraola jaunari beren lan egoki «Ganich» eta «Siaska bat» izendatutakoa-gatik.


Donostian 1912-ko Abenduaren 21-an.

MIGUEL SALAVERRÍA

Buru-ordekoa.

TORIBIO ALZAGA

Goarpelaria.



DONOSTIA. —Calle de Hernani.